

# EUSKAL-ERRIA

REVISTA VASCONGADA

T.º LXXIX SAN SEBASTIÁN 30 DE NOVIMEBRE DE 1918 N.º 1213



AITA LARRAMENDI

# AITA LARRAMENDI

---

Izen ospetsu au gaurko egunian entzuten ere ez da iya.

Ez da bada izango gizon leñargi, euskal-zale pizkor eta izlari bikañez Euskal errian lengo garayak betiak daudelako.

Zorigaiztoan banaka, oso banakakuak izan ditugu gure euskera maitagarriaren alde eraso izan dutenak.

Eta banakako oyen artian Aita Larramendi trebienetako bat izan da.

Ala ere izen ospetsu ori ez da entzuten gaurko eguneko euskeldu-nen artian.

¿Zergatik isiltasun izen gabeko ori?

Aita Larramendi'ren euskera ganako lei bizi ta gartsua bere liburu zarretan agertzen zaigu.

Iñor guchi euskeraz oroitzen zan garai artan, Aita Larramendi, buru ta belarri gure izkera illezkorraren aldeko lanetan gelditu gabe ari zan.

Berak aitortzen digu Itzkegiaren asieran.

An azaltzen du argi asko zenbaterañoako lanak eraman biar izan zituben bere Itztegia antolatzeke.

Esan nezake, diyo berak, zimenduetatik asi biar izan detala lan au; bada ordu artekua, edo ezer ez zan, edo oso chartzat utzi zitekian.

Beste izkuntzetan, liburuetan guztiya arkitzen da.

¿Non ziran ordia, garai artan, euskerazko liburuak?

Euskal-itzak ez zeuden orduban liburu orrietan, ezpañetatik ezpañetara zebiltzan baizik.

Orrela aidian dabiltzan itzak arrapatzia eiza zail samarra dala gauza jakiña da.

Bada zail samarra izan arren lan orri ekin zion Aita Larramendi argidotarrak.

Lan asko, buru-auste naikua lan orrek eman zizkion, bañan guztitarako indarra, bere euskera ganako maitasunean arkitu zuen eta oker guziak zuzenduaz, zailtasun guziaz gain emanaz argitaratu zuen ordu arte izan ez zan bezelako Itztegia.

Ondoren etorri dianak lanaren erdiya egiña zeukaten.

Aita Larramendi ospetsuak bildutako itz jatorrak ez bakarrik gordeta zeuden bere Itztegian.

¡Ez! Zabalduak ziran beste geroztikako liburuetan, eta aboz abo zebiltzan euskeldunen artian.

Geroztikako eizak beraz, lenbizikoa baño askoz errešaguak ziran.

Len esan degun bezela, lanaren erdiya egiña utzi zioten Aita Larramendi argidotarrak.

Eta, alare, izen ospetsu ori, euskeldunen artian entzuten ez da orain.

Lan berriak etorri dira, izen berriak azaldu dira, ta lengo izen gogoangarriak chokora.

Gaurko eguneko euskeldunak beterik beren biyotzak oraingo izen berri berriakin, ¿ez ote daukate toki piñin bat ere lengo izen ospetzentzat?

Orrela balitz, biyotz chikikoak dirala oraingo euskelduunak esango genuke.

Orain urte guchi arte, Aita Larramendi'ren izen leñargia entzuten zan. Orain batere ez.

Andoain'go Garagorri baserrian, Larramendi'ren jayotechean, euskalzale pilla aundia, andoaindar zintzoak lagunduaz, izen gogoangarri au goitutzera bildu zirala, ainbeste urte ez dira.

Bañan guztiya aztutzeko naikoa izan dira.

¡Zer asmo zentzudunak, Larramendi'ren izena goitutzeko, artu ziran orduan!

Asmuak ordia, asmotan gelditu ziran.

Ala ere, orduan baño, euskera ganako maitasun geyago dala esango digute Euskal errian.

Ez dago ichura aundirik.

Gu bada, iñilduko ez gera. Goitu bitez nai bada oraingo izenberriak, bañan guk ez ditugu beñere chokoratuko lengo izen zar gogoangarriak.

Beren izen ospetsuak beti ta beti goituko ditugu.